



## ***2011. URTEKO TXOSTENA***

***ALERTAK: ANIMALIEN ELIKAGAIK, ELIKAGAIK ETA  
ANIMALIEN GAIXOTASUNAK***



# **AURKIBIDEA**

## **1. ANIMALIEN ELIKAGAIK**

- 1.1. Jakinarazpenak sailkatzea
- 1.2. Antzemandako arriskuen jatorria
- 1.3. Inplikaturako produktu mota
- 1.4. Jakinarazpenetan inplikaturako lehengaiak
- 1.5. 2006. eta 2011. urteen arteko konparazioa

## **2. ELIKAGAIK**

- 2.1. Alerta eta jakinarazpenen kopurua
- 2.2. Antzemandako arriskuen jatorria
- 2.3. Antzemandako arriskuak
- 2.4. 2006. eta 2011. urteen arteko konparazioa

## **3. ANIMALIEN GAIXOTASUNAK**


- 3.1. Foku kopurua
- 3.2. Jakinarazpenen jatorria
- 3.3. Egiaztatuko animalien gaixotasunak
- 3.4. 2006. eta 2011. urteen arteko konparazioa

# ANIMALIEN ELIKAGADURA




## 1.1. JAKINARAZPENAK SAILKATZEA


**2011.** urtean animalien elikagaiei buruzko **362** jakinarazpen egin dira: horietatik 19 alertak izan dira, 163 informazio-jakinarazpenak eta 180 mugan egin diren ukapenak.




RASFFen bidez jasotako jakinarazpen-kopuruaren joerari dagokionez, lehenengo lauhilekoan asko izan dira mugan egin diren ukapenak, bigarren eta hirugarren lauhilekoetan horien kopuruak behera egin badu ere. Bestalde, alertek behera egin dute bigarren lauhilekoan. Informazio-jakinarazpenei dagokienez, nahiko egonkor mantendu dira urte osoan.



Espainiak 26 jakinarazpen egin ditu aurten. Oro har, 2010. urtearekin erkatuz gero, **jakinarazpenek nabarmen egin dute gora**. Urte hartan Espainiak 23 jakinarazpen egin zituen guztira. Jakinarazpen gehienak Txiletik eta Marokotik zetorren arrain-irinean atzemandako mikrobiologiaren ondorioz muga egindako ukapenek eragin dituzte.




Inplikaturako produktuen herrialdeei dagokienez, **hirugarren herrialdeek** egin dituzte **jakinarazpenen % 71**, eta horien artean India nabarmendu behar da; izan ere, 118 alditan izan da jakinarazpenen jatorrizko herrialde. Jakinarazpenak, batez ere, txorientzako pentsuetan erabiltzen diren kakahueteetan atzemandako B1 aflatoxinaren ondorio izan dira.



## 1.2. ATZEMANDAKO ARRISKUEN JATORRIA


2011n atzemandako arrisku gehienak **mikrobiologikoak (% 39)** eta **mikotoxinek eragindakoak (% 34)** izan dira. Horien ondotik, **aipagarriak dira dioxinen presentzia (% 7)** eta **metal astunena (% 6)**.



Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, **Salmonellak** eragin ditu jakinarazpen gehienak (**120**). Salmonella atzeman den lehengaien artean, **soja-irina (35)**, **arain-irina (35)** eta **txakurrentzako mastekagarriak (19)** dira aipagarrienak.


Gehien (121 aldiz) atzemandako **mikotoxina kakahueteetako B1 aflatoxina** izan da.

Lauhilekoka, aipatzekoa da lehenengo lauhilekoan B1 aflatoxinak jakinarazpen asko eragin dituela. Mikrobiologiak eragindako jakinarazpenei dagokienez, aipatzekoa da jakinarazpen gehiago egon direla bigarren eta hirugarren lauhilekoan, lehengoan baino. Azkenik, aipatzekoa da hirugarren lauhilekoan metal astunak direla-eta egindako jakinarazpen-kopuruak gora egin duela.




### 1.3. INPLIKATUTAKO PRODUKTU MOTAK

Produktuka aztertuz gero, **lehengaiak** eragin dituzte jasotako jakinarazpenen % **78**, laguntza-animalientzako pentsuek % 12, gehigarri eta aurre-nahasketek % 6 eta gizentzeko animalientzako pentsuek % 4.



Jakinarazpenetan inplikaturiko produktu-moten bilakaera lauhilekoka alderatuz gero, ikusten da lehengaiak eragin dituzten jakinarazpenen kopuruak behera egin duela urtean zehar. Beste alde batetik, laguntza-animalientzako pentsuek nabarmen egin dute gora hirugarren lauhilekoan.


### Inplikaturako produktu-moten kategoriak lauhilekoka – 2011



#### 1.4. JAKINARAZPENETAN INPLIKATURAKO LEHENGAIK


Jakinarazpen gehienetan inplikaturako lehengaien artean, aipatzekoak dira arrain-irina (% 17) eta laguntza-animalientzako pentsuak (% 14), batik bat txakurrentzako mastekagarriak. Inplikaturako beste lehengai batzuk dira soja-irina (% 12), kakahueteak (% 40) eta koltza-irina (3). Gehigarriek jakinarazpenen % 7 eragin dituzte.

#### Jakinarazpenetan inplikaturako lehengaiak – 2011






Inplikaturako lehengaien bilakaera lauhilekoka aztertuz gero, nabarmentzekoa da lehen lauhilekokoan gora egin dutela kakahueteei dagozkien jakinarazpenek. Era berean, bigarren eta hirugarren lauhilekokoetan arrain-irinari eta soja-irinari dagozkion jakinarazpenek egin dute gora, eta hirugarren lauhilekokoan laguntza-animalien pentsuek eragindakoek.




### 1.5. 2006. ETA 2011. URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

Jakinarazpenen kopuruaren bilakaerari dagokionez, 2011n 362 jakinarazpen egin dira. 2010ean, berriz, 183 jakinarazpen izan ziren; hortaz, aurreko urteko **jakinarazpenen kopurua ia bikoiztu egin dela esan daiteke**. Aurreko urteen aldean, ugaritu egin dira alertak, informazio-jakinarazpenak eta, batik bat, mugan egindako ukapenak.



2006. urtetik 2011. urtera bitartean identifikatutako arriskuei dagokienez, **nabarmendu egin behar da mikrobiologia-arriskuen eragina**, betiere atzemandako gainontzeko arriskuekin erkatuz gero; izan ere, azken 6 urteetako kasu-kopuru handiena eragin du. Gainera, **mikotoxinek** ere asko egin dute gora, kakahueteetan atzemandako B1 aflatoxinaren ondorioz. Beste alde batetik, **metal astunei eta dioxinei dagozkien jakinarazpenak ugaritu egin dira**. Aurreko urteen aldean murriztu diren arrisku bakarrak PAEek eta OGMek eragindakoak izan dira.




# ELIKAGAIAK



## 2.1 ALERTA ETA JAKINARAZPENEN KOPURURA


2011an Alerta Azkarra Sistemaren (RASFF) bidez **3.050** alerta eta informazio-jakinazpen jaso dira.




## 2.2 ANTZEMANDAKO ARRISKUEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorriari dagokionez, aipatu behar da Asiak (% 43) eta Europak (% 33) eragin dituztela jakinazpen gehienak. Ameriketako jakinazpen kopuruak, berriz, zertxobait egin du behera, 2010. urtearekin erkatuz gero. Gainerako herrialdeetako jakinazpenen kopuruak aurreko urteetako antzekoak izan dira.

Honako hauek izan dira urteko batez bestekoak:




Hauxe izan da arriskuen jatorriaren bilakaera lauhilekoka:




### 2.3 ANTZEMANDAKO ARRISKUAK

Aurreko urteetan bezalaxe, kutsadura biologiak eragin ditu jakinarazpen gehien; baina, eutsi egin diote iazko mailari. Aurten, mikotoxinak izan dira jakinarazpen gehien sortu dituzten bigarren taldea.


Hauk dira antzemandako arriskuei dagozkien urteko neurriak eta lauhilekoka izan duten bilakaera:






**MIKOTOXINEK** eragindako kutsadurari dagokionez, kasu gehienak (**% 82**) **Aflatoxinek** eragin dituzte. Eta, horrelakoetan, **kakahueteek** kutsadura kasuen **% 42** eragin dute. Kakahuete gehienak **Asiakoak** izan, **%48,5**ean.

Hona hemen aflatoxinek eragindako jakinarazpenek 2011. urtean izan duten bilakaera:




**KUTSADURA BIOLOGIKO**ari dagokionez, jakinarazpenen **%21,5** izan dira, eta talde honetan **Salmonella sp.** nabarmendu behar dugu, kutsadura biologikoen **% 37,5** eragin baitu (urteko batez bestekoa).

Honako hau izan da kutsadura biologikoek izan duten igoera:.




Badira Salmonella espezie batzuk giza osasunerako arriskutsuak direnak (*S.typhimurium* eta *S.enteritidis*); baina, horiez gain, badira bestelako Salmonella espezie batzuk. Horien artean **salmonella exotikoak** nabarmendu behar ditugu (%95). Produktu kaltetuei dagokienez, jakinarazpen % **46a belar aromatikoek** eragi dituzte, **asiakoak** direlarik %**86**an. Bigarren postuan, **oilategi-hegaztiek** eragin dituzte, %**33,5**an.

**KUTSADURA KIMIKO**ari dagokionez, jakinarazpenen % **11** izan da. **Koloragarriek** eta **gehigarriek** alerten eta jakinarazpenen % **49,5a** eragin dituzte. Talde horren barruan gozokiak, edariak, espezieak, ozpinkiak eta elikagai gehigarriak izan ditugu, eta denek izan dituzte antzeko portzentajeak.




**HONDAKIN**ak aipatu behar dira ere, hala pestizidak nola medikamentuak, bostgarren urtez jarraian igo direla, 2006ko %5etik 2011ko %**17**ra pasatuz. Batezbeste **pestiziden hondakinak %74a** dira eta **medikamentuen hondakinak %26a**.



#### 2.4 2006. Eta 2011 .AZKEN URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

Azken urteak alderatuz gero, jasotako alertak zein jakinarazpenak ugaritu egin dira urtetik urtera: 2006. urtean 2409 jaso ziren eta **2011**ean, **3050**. Hainbat aldageta gorabehera, oro har antzeko joerak antzeman dira.



Gehien antzeman diren kutsadura eragileei erreparatzen badiegu, konturatuko gara, aflatoxinen eta koloratzaileen eta baimendu gabeko gehigarrienak alerta kopuruak behera egin du, eta Salmonella sp.renak, berriz, antzekoa da.




# ANIMALIEN OSASUNA



### 3.1. FOKU KOPURUA

2011n zehar, Europako Albaitaritzako Osasun Alerta Sarearen (RASVE) bidez, animalien gaixotasunen 2.834 foku egiaztatu dira.

2011n zehar egiaztatutako foku-kopuruaren bilakaera, lauhilekoka, honako hau izan da:



Grafikoan ikus daitekeenez, bigarren lauhilekoan egiaztatu da foku-kopuru handiena.

### 3.2 JAKINARAZPENEN JATORRIA

2011n honako herrialde hauek egiaztatu dituzte foku gehien: Turkia, Errumania, Italia, Alemania, Espainia eta Hungaria. 2010ean, Errumanian eta Hungarian izan ezik, herrialde horiek eurek egiaztatu zituzten foku-kopuru gehien.

2010ean bezala, 2011n **Turkian** atzeman dira foku gehienak: 1.965 orotara, Sukar Aftosoaren epidemiaren ondorioz. Gaixotasun horri dagokionez, aipatzekoak dira Bulgarian, herrialde mugakidean, agertutako fokuak. Bi herrialdeetako osasun-agintariak elkarlanean ari dira, informazioa trukatzeko eta gaixotasuna gehiago hedatzea ekiditeko; izan ere, Turkiako Errepublikako albaitari adituek egindako datuen analisiak oinarritzat hartuta, uste da Turkiako Europako aldean dabilen sukar aftosoaren birusak Bulgariako etxeko nahiz basoko animaliak kutsatzeko arrisku handia eragiten duela, animalia basatien bidez. Bulgariak sukar aftosoa behatzeko plana onetsi du, Europako Batzordeak ere onetsitakoa, eta nahitaez bete behar dena.

Halaber, Newcastle gaixotasunaren, Hausnarkari Txikien Izurritearen eta Ardien eta Ahuntzen Nafarrerriaren fokuak aurkitu dira Turkian.

**Errumanian** atzemandako foku guztiak (429) Zaldien Anemia Infekziosoarenak izan dira.


**Italian**, bestalde, gaixotasun ezberdinetako 221 foku egiaztatu dira RASVEren bidez. Foku-kopuru handienak (76 foku) Zaldien Anemia Infekziosoak eta Zaldien Entzefalomieltis mota guztiek (63 foku) eragin dituzte. Nabarmentzekoak dira, gainera, Afrikako Txerri Izurria (27 foku) eta Patogenotasun Eskaseko Hegazti-gripea oilategi-hegaztien artean (22 foku).

**Alemanian** 69 foku atzeman dira guztira, eta horietatik 51 Koi herpesbirusak eragindako gaixotasunak izan dira. Karpei (arrainak) eragiten die.

**Espanian** 2011n zehar egiaztatutako 55 fokuetatik, 34 Gerri-azkurari (Scrapie) dagozkie, eta honako hauek dira gainerako gaixotasunak: Mingain Urdin gaixotasuna (10 foku), Zaldien Entzefalomieltis mota guztiak (5 foku), Behien Entzefalopatia Espongiformea (5 foku) eta Koi herpesbirusak eragindako gaixotasuna (1 foku).

**Hungarian** 22 foku egiaztatu dira, eta horietatik 12 Zaldien Anemia Infekziosoari dagozkio.

Ondoko grafikoan ageri dira 2011n zehar RASVEren bidez 20 jakinarazpen baino gehiago egin dituzten herrialdeak. Kopuru osoarekiko ehuneko erlatiboak ematen dira:



### 3.3 EGIAZTATUTAKO ANIMALIEN GAIXOTASUNAK

Ondoko taulan erakusten dira 2011n zehar European RASVEren bidez egiaztatu diren gaixotasun guztiak, baita gaixotasun bakoitzari dagokion foku-kopurua ere:

<i>Gaixotasuna</i>	<i>Foku kopurua</i>
Sukar Aftosoa	1676
Zaldien Anemia Infekziosoa	521
Hausnarkari Txikien Izurritea	216
Zaldien Entzefalomielitisa	77
Koi herpesbirusa	59
Newcastle gaixotasuna	51
IABP oilategi-hegaztietan	41
Mingain Urdin gaixotasuna	34
Gerri-azkura	34
Ardien eta Ahuntzen Nafarrerria	33
Afrikako Txerri Izurria	27
EEB	21
Birus Septizemia Hemorragikoa	9
IABP basoko hegaztiengan	8
Txerrien Xixkuko Gaitza	7
Nekrosi hematopoietikoa	6
Durina	5
Martelia refringens infekzioa	3
Afrikako Txerri Izurria basurdeengan	3
IABP hegazti gatibuen artean	1
Bonamia exitiosak eragindako infekzioa	1
Txerrien Izurri klasikoa	1

2010ean bezala, 2011n **Sukar Aftoso gaixotasunak** eragin ditu European RASVEren bidez egiaztatu diren foku gehienak.

2010ean Sukar Aftosoaren 1085 foku atzeman ziren, guztiak Turkian. 2011n, berriz, gaixotasun horren 1.676 foku egiaztatu dira: 1.670 Turkian eta 6 Bulgarian.


Jakinarazpen-kopuruari dagokionez, bigarren gaixotasun garrantzitsuena **Zaldien Anemia Infekziosoa** izan da: 521 foku izan dira, orotara. 2010ean gaixotasun horren 190 foku atzeman ziren, gehien-gehienak Italian.

2011n, ordea, urteko bigarren lauhilekotik aurrera gora egin dute gaixotasun horren fokuek Errumanian, eta hori izan da Zaldien Anemia Infekziosoaren foku gehien egiaztatu dituen herrialdea.

Aipatzekoa da, halaber, **Hausnarkari Txikien Izurritearen** fokuek ere gora egin dutela 2011ko hirugarren lauhilekoan: 216 foku izan ziren guztira. Gaixotasun horren foku guztiak Turkian atzeman dira.




Hurrengo grafikoan erakusten da jakinarazpen gehien eragin dituzten gaixotasunen (Sukar Aftosoa, Zaldien Anemia Infekziosoa eta Hausnarkari Txikien Izurritea) joera zein izan den 2011n. Datuak lauhilekotan banatu dira:



### 3.4 2006. Eta 2011 . URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

Honako hau izan da 2006tik 2011ra bitartean jakinarazitako foku-kopuruaren bilakaera:



Aurreko grafikoan aipagarria da 2007an egiaztatutako foku-kopuru handia (13.571). Mingain Urdin gaixotasunak eragindako foku-kopuru handiaren (9.561 guztira) ondorio izan zen egoera hori. Bada, nabarmentzekoa da urte horretako jakinarazpenen % 63k Espainian izan zutela jatorria.

2007an bezalaxe, 2008an egindako jakinarazpen gehienak Mingain Urdin gaixotasunaren ondorio izan ziren.

Ikus daiteke 2009an jakinarazpen-kopuruak behera egin zuela (1.398) aurreko hiru urteen aldean. Bestalde, foku-kopuruak gora egin du 2011. urtera arte.

Gaixotasunez gaixotasun, honako hau izan da 2006tik 2011ra bitarteko epean egindako jakinarazpenen bilakaera:

